

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3648

*1521/2022 EBAZPENA, ekainaren 24koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Nerea Borda Arrizabalaga andrea izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Kirurgia Orokorreko eta Digestio-aparatuko Atal Sanitarioko buru (Kolon-ondesteko Arloa) aldi baterako, lau urte luzagarriz.*

Donostialdeko ESiko zuzendari-gerentearen urriaren 21eko 1313/2021 Ebazpenaren bitartez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESiko Kirurgia Orokorreko eta Digestio-aparatuko Atal Sanitarioko Burua (Kolon-ondesteko Arloa) lanpostua betetzeko, lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko urtarrilaren 19ko EHAA 12. zk., eta 2022ko urtarrilaren 26ko BOE 22. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Nerea Borda Arrizabalaga andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea Osakidetzako Donostialdeko ESiko Kirurgia Orokorreko eta Digestio-aparatuko Atal Sanitarioko buru (Kolon-ondesteko Arloa).

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Nerea Borda Arrizabalaga andrea izendatzea Osakidetzako Donostialdeko ESiko Kirurgia Orokorreko eta Digestio-aparatuko Atal Sanitarioko buru (Kolon-ondesteko Arloa) aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta 2022ko ekainaren 20tik aurrera izan zituen ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik, izendatua, aldeztu aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartuta aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Donostialdeko ESlari.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osa-  
kideztako Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau EHAA  
argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2022ko ekainaren 24a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.

EB (53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria,  
ESTHER LITAGO SOLA.